



GAILUR
MENDI TALDEA
Lezama 1991-2021



- 1. LEGE-ABISUA**
- 2. PRIBATUTASUN-POLITIKA**
- 3. COOKIEAK: Cookieen politika**

LEGE-ABISUA – ERABILERA-BALDINTZA OROKORRAK

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN (IFZ: G48643639, egoitza soziala: Garaioltza kalea 133 E, Uribarri Topalekua, 48196, Lezama, Bizkaia) jabetzakoa da www.gailur.org webgunea (aurrerantzean “webgunea”). Honako zenbaki hau du klubak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan: 1992.

Honen bitartez, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ongietorria eta webgune honen erabilera-baldintza orokorrak (aurrerantzean "erabilera-baldintza orokorrak") arretaz irakurtzeko gonbita egiten dizu. Bertan, gure webgunean zehar nabigatzen duzunean aplikagarriak izango diren zehaztapen eta baldintzak jasotzen dira, dagokion araudian ezarritakoaren arabera. LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK aukera izango du etorkizunean erabilera-baldintza hauek aldatzeko, eta beraz, aldizka bisitatzeko gomendatzen dizugu, modu horretan egin ditugun aldaketa guztien jakitun izan zaitezten.

1. Xedea

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK doako informazio argia ematen die erabiltzaileei webgune honetako edukien bitartez, elkarteari bererari buruz eta erabiltzaileei eskaintzen dizkien ekintza eta zerbitzuei buruz, betiere erabilera-baldintza orokor hauetan eta datu pertsonalen tratamenduari buruzko politikan (aurrerantzean “datuak babesteko politika”) ezarritakoari jarraikiz. Webgune honetara sartzeak edo webgunea beste edozein modutara erabiltzeak “erabiltzaile” bihurtzen zaitu, eta berekin dakar erabilera-baldintza guzti-guztiak erabat onartzea. Alabaina, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK eskubidea izango du baldintza horiek edozein unetan aldatzeko. Horrenbestez, erabiltzailearen arduraren izango da webgunera sartzen den bakoitzean indarrean dauden erabilera-baldintza orokorrak arretaz irakurtzea. Gauzak horrela, hemen ezarritako zerbaitekin ados ez egotekotan, webgunea erabiltzeari utzi beharko zaio.

Halaber, erabiltzaileari ohartarazten zaio, batzuetan, baldintza bereziak ezar daitezkeela webgune honetako eduki eta/edo zerbitzu espezifikoak erabiltzeko. Kasu horretan, eduki edo zerbitzu horiek erabiltzeak berekin ekarriko du arestian aipatutako baldintza bereziak onartzea.

2. Jabetza industrial eta intelektualak

Erabiltzaileak aitortu eta onartu egiten du webgunean dauden eduki guztiak eta, bereziki, diseinuak, testuak, irudiak, logoak, ikonoak, botoiak, softwarea, izen komertzialak, markak edo industria- eta/edo merkataritza-erabilera izan dezakeen bestelako edozein zeinu jabetza intelektualaren eskubideen menpe daudela, baita orrialdean dauden eduki eta/edo bestelako edozein elementuren sinbolo bereizgarriak ere; izan ere, industria- eta jabetza-eskubide guztiak LEZAMA GAILUR MENDI TALDEARENAK eta/edo hirugarrenenak dira, eta hori horrela, trafikiko ekonomikoan erabiltzeko eskubide eskusiboa dute. Horregatik guztiagatik, erabiltzaileak eduki horiek ez erreproduzitzeko, kopiatzeko, banatzeko, publikoki edo bestelako edozein modutan eskuragarri jartzeko, eraldatzeko edo aldatzeko konpromisoa hartzen du. Zentzu horretan, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEA salbuetsita egongo da betebeharrak ez betetzetik eratorritako edozein errekamazioren aurrean erantzun beharretik. Webgunera sartzeak ez du berekin ekartzen eskubide horien gaineko uko, eskualdatze, lizentzia edo emakida oso edo partzialik, salbu eta espresuki kontrakoa adierazten bada. Webguneko erabilera-baldintza orokorrek ez diote baldintza hauetan espresuki adierazitako eskubideetatik haratago doan eskubiderik ematen erabiltzaileari webgunea eta/edo bertan jasotako edukiak erabiltzeko, aldatzeko, ustiatzeko, erreproduzitzeko, banatzeko edo publikoki komunikatzeko. Edozein eskubideren bestelako erabilera edo ustiaketa oro LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK edo eragindako eskubideen titular den hirugarrenak aurretiaz eta berariaz emandako baimen espezifikoren menpean egongo da.

Webgune honetako edukiak, testuak, argazkiak, diseinuak, logotipoak, irudiak, ordenagailurako programak, iturburu-kodeak eta, oro har, edozein sorkuntza intelektual eta webgunea bera, multimedia obra artistikoa den aldetik, egile-eskubide gisa babesten ditu jabetza intelektualaren arloko legeriak. LEZAMA GAILUR MENDI TALDEA webgunearen diseinu grafikoa osatzen duten elementu guztien jabea da, barne hartuta, menuak, nabigazio-botoiak, HTML kodea, testuak, irudia, testurak, grafikoak eta webguneko beste edozein eduki; edozein kasutan, jabea ez bada, dagokion baimena du elementu horiek erabiltzeko. Webguneko edukia ezin izango da informazioa berreskuratzeko inongo sistemaren bitartez osorik edo partzialki erreproduzitu, transmititu edo erregistratu, inongo forma edo baliabideren bitartez, salbu eta aipatutako erakundearen aurretiazko idatzizko baimena badu horretarako.

Halaber, debekatuta dago copyrighta ezabatzea, saihestea eta/edo manipulatzeko, baita babeserako gailu teknikoak edo edukietan egon litekeen bestelako edozein informazio-mekanismo ere. Webgune honetako erabiltzaileak konpromisoa hartzen du arestian adierazitako eskubideak errespetatu eta eskubide horiek kalte ditzakeen jarduerara oso saihesteko. Edozein kasutan, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK dagozkion bitarteko edo ekintza legalak abiaraziko ditu legez dagozkion jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak babesteko.

3. Webguneko erabiltzailearen betebeharrak eta erantzukizunak

Erabiltzaileak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Webgunearen eta haren eduki eta zerbitzuen erabilera egokia eta legezkoa egitea, hauen arabera: (i) unean-unean aplikagarria den legeria; (ii) webgunearen erabilera-baldintza orokorrak; (iii) oro har onartutako moralak eta ohitura onak eta (iv) ordena publikoa.

b) Webgunera sartzeko beharrezkoak diren bitarteko eta betekizun tekniko guztiak eskuratzea edo betetzea.

c) Egiazko informazioa ematea webguneko inprimakiak datu pertsonalekin betetzean, eta eguneratuta izatea datu horiek, erabiltzailearen unean uneko egoerarekin bat etor daitezela. Erabiltzailearena izango da egiten dituen adierazpen faltsu edo ez-zehatzen eta emandako informazioak LEZAMA GAILUR MENDI TALDEARI edo hirugarrenei eragiten dizkien ondorioen gaineko erantzukizun oro.

Aurreko atalean adierazitakoari kalterik egin gabe, erabiltzaileak honako hauek ere saihestu beharko ditu:

a) Webgunearen edo haren edukien erabilera ez-baimendu edo iruzurrezkoa egitea legez kanpoko, erabilera-baldintza orokor hauetan berariaz debekatutako, hirugarrenen eskubideak edo interesen kalterako edo edozein modutan zerbitzuen edo dokumentuen, fitxategien edo edozein informatika-ekipotan biltegitratutako mota guztietako edukien ohiko erabilera kaltetu, baliogabetu, gainkargatu, narriatu edo ekidin dezaketen helburu edo ondoreekin.

b) Webguneko eremu mugatuetara sartzea edo sartzen saiatzea, sartzeko baldintzak bete gabe.

c) Webgunearen, hornitzaileen edo hirugarrenen sistema fisiko edo logikoetan kalteak eragitea.

d) LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN, haren hornitzaileen edo hirugarrenen sistema fisiko edo logikoetan kalteak eragin ditzaketen birus informatikoak edo bestelako sistema fisiko edo logikoak sarean sartzea edo zabaltzea.

e) LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN, hirugarren hornitzaileen eta bestelako erabiltzaileen datuak atzitzen, erabiltzen eta/edo manipulatzeko saiatzea.

f) Edukiak erreproduzitzea, kopiazea, zabaltzea, eskura jarri edo beste edozein modutan jendaurrean jakinaraztea, eraldatzea edo aldatzea, betiere eskubide horien titularrak ez badu horretarako baimenik eman edo ez badago legalki baimenduta.

g) Jabetza intelektualaren edo industria-jabetzaren eskubideari buruzko oharrak ezabatzea, ezkutatzea edo manipulatzeko, edo LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN edo edukietan parte hartu duten hirugarrenen eskubideen gaineko identifikazio-datuak, baita babeserako gailu teknikoak edo edukietan sar daitezkeen bestelako informazio-mekanismoak ere.

h) Edukiak eskuratzea eta edukiak eskuratzen saiatzea, horretarako, dagokionaren arabera, eduki horiek jasotzen dituzten webguneetan eskuragarri jarri diren edo espresuki adierazi diren prozedura ezberdinak erabiliz edo, oro har, normalean Interneten erabiltzen direnak, ez dutelako webgunea eta/edo edukiak kaltetzeko edo baliogabetzeko arriskurik.

i) Hain zuzen, erabiltzaileak hitzematzen du (modu adierazgarrian eta guztiz zehaztu gabe) ez duela transmitituko, zabalduko edo hirugarrenen esku jarriko baldintza hauek betetzen dituen informazio, datu, eduki, mezu, grafiko, marrazki, soinu- eta/edo irudi-artxibo, argazki, grabazio, software eta, oro har, inolako materialik:

(i) Konstituzioak, nazioarteko itunak eta gainerako legeak ezartzen dituzten oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak kaltetzea, gutxiestea edo erasotzea.

(ii) Delituzkoak, iraingarriak, difamaziozkoak, belzgarriak, biolentoak edo, oro har, legearen, moralaren eta orokorrean onartutako ohituren edo ordena publikoaren kontrakoak diren jarduketak eragitea, bultzatzea edo sustatzea.

(iii) Sexuagatik, arrazagatik, erlijioagatik, sinesmenengatik, adinagatik edo norberaren egoeragatik sortutako diskriminaziozko jarduketak, jarrerak edo pentsamenduak eragitea, bultzatzea edo sustatzea.

(iv) Delituzkoak, biolentoak, iraingarriak, kaltegarriak, umilgarriak edo, oro har, legearen, moralaren eta orokorrean onartutako ohituren edo ordena publikoaren kontrakoak diren produktu, elementu, mezu eta/edo zerbitzuak barne hartzea, eskaintzea edo horietarako sarbidea ematea.

(v) Antsietate- edo beldur-egoera onartezina eragitea edo eragiteko gai izatea.

(vi) Osasunerako eta oreka psikikorako arriskutsuak diren, arriskuak eragin ditzaketan edo kaltegarriak diren jarduerak egitea sustatzea edo bultzatzea.

(vii) LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN edo hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialaren babesaren gaineko legeriak babestea eta eman nahi zaion erabilera aurretiaz baimenduta ez egotea.

(viii) Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako edo pertsonen irudirako eskubidearen kontrakoa izatea.

(ix) Edozein motatako publizitatea egitea.

(x) Webgunearen ohiko funtzionamendua oztopatzen duen birus edo programa motaren bat izatea.

Erabilera-baldintza hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeria edo doloa direla bide betetzen ez bada, erabiltzaileak ez-betetze horrek LEZAMA GAILUR MENDI TALDEARI eragin diezazkiokeen kalte eta galeren erantzule izango da.

4. Erantzukizunak

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du bermatzen webguneko elementuak eta informazioa era jarraituan kontsultatu ahal izango direnik, ez eta horiek ikusi, deskargatu edo erabili ahal izango direnik ere. Izan ere, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN kontroletik kanpoko faktore edo elementuek webguneko edukiak galarazi, zaildu edo eten litzakete.

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du bere gain hartzen eskainitako eduki edo informazioen ondorioz har litezkeen erabakien gaineko erantzukizuna.

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK zerbitzua eten dezake edo erabiltzailearekiko harremana berehala ezezta dezake, hautematen badu webgunea erabilera-baldintza orokor hauetan xedatutakoaren kontra erabiltzen ari dela. LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez ditu bere gain hartzen webgunearen erabileraren ondorioz sor daitezkeen kalteak, galerak, erreklamazioak edo gastuak. Kalte horiek eragin ditzaketen edukiak ahal bezain laster ezabatzeko arduraz izango du, besterik ez, horren beti ematen zaionean. Bereziki, ez du erantzukizunik izango jarraian zerrendatutako jardueren ondoriozko kalteen kasuan, besteak beste:

(i) Interferentziak, etenaldiak, akatsak, omisioak, telefono-matxurak, atzerapenak, blokeoak edo deskonexioak sistema elektronikoaren funtzionamenduan, telekomunikazio-linea eta sareetako akats, gainkarga eta errorearen ondoriozkoak, edo LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN kontroletik kanpoko beste edozein kausak eragindakoak.

(ii) Edozein motatako programa gaiztoen bidezko sarrera legez kanpokoak, edozein komunikazio motaren bidez eginikoa, hala nola birus informatikoak edo bestelakoak.

(iii) Webgunearen gehiegizko erabilera desegokia.

(iv) Segurtasun- edo nabigazio-akatsak, nabigatzailearen funtzionamendu okerraren edo eguneratu gabeko bertsioen erabileraren ondoriozkoak. Administrazioaileek beretzat gordetzen dute webgune honetako edozein eduki edo informazio partzialki edo oso-osorik kentzeko eskubidea.

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du inolako erantzukizunik hartuko erabiltzaileek webgunea gaizki erabiltzeagatik gerta daitezkeen edozein motatako kalte-galeraren inguruan. Era berean, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du inolako erantzukizunik izango datuak jasotzeko inprimakien bidez jasotzen den eduki eta informazioen gainean, horien xede bakarra izanik kontsultak eta zalantzak argitzeko zerbitzua ematea. Bestalde, zerbitzu horien okerreko edo legez kanpoko erabilerak kalte-galerak eragingo balitu, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK kalte-ordaina eskatu ahal izango dio erabiltzaileari.

Zuk LEZAMA GAILUR MENDI TALDEA defendatuko duzu, kalte-ordainak ordainduko dizkiozu eta edozein erantzukizunetik libre utziko duzu, webgunerako zure sarbidearen ondorioz hirugarrenek aurkeztutako erreklamazio, ekintza eta auziei dagokienez. Gainera, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEARI kalte-ordaina ordainduko diozu baldin eta «robot»-ak, «spider»-ak, «crawler»-ak edo antzeko tresnak erabiltzen badituzu webgunetik informazioa edo datuak ateratzeko edo lortzeko, eta horrek karga neurrigabea eragiten badio webgunearen funtzionamenduari.

5. Hiperestekak

Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN webgunea edo horren edukiak inola ere ez erreproduzitzeko, ezta hiperesteka bidez ere, salbu eta LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK baimena espresuki eta idatziz ematen badio.

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN webguneak baditu hirugarrenek kudeatutako webguneetarako hiperestekak. Horri dagokionez, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du bere gain hartzen webgune horien edukia, eta ez da webgune horietan hirugarrenek eskain ditzaketan zerbitzu eta/edo informazioaren bermatzailea edo eskaintzailea.

Erabiltzaileari eskubide mugatu, ezeztagarri eta ez-esklusiboa ematen zaio webgunearen orri nagusirako estekak egiteko, erabilera pribatu eta ez-komertzialerako bakar-bakarrik. Gure webgunerako esteka duten webguneek (i) ezingo dute aditzera eman LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK beren webgunea edo zerbitzuak edo produktuak gomendatzen dituela; (ii) ezingo dute LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREKIN duten harremanari buruzko datu faltsurik eman, ez eta LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK esteka baimendu duenik adierazi ere, eta ezingo dituzte erabili LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAREN markak, izenak, izen komertzialak, logotipoak edo bestelako bereizgarriak; (iii) ezingo dituzte bertan txertatu gustu txarreko edukiak, eduki lizunak, iraingarriak, polemikoak, sexu, arraza edo erlijioagatik indarkeria edo diskriminazioa sustatzen dutenak, ordena publikoaren kontrakoak edo legez kanpokoak; (iv) ezingo dute webguneko orri nagusiaz bestelakoetarako estekarik egin; (v) webgunearen izen bera erabiliz egin beharko dute esteka, halako moldez non esteka gauzatzen duen webguneak ez duen webgunea bere «frame» baten barruan erreproduzitzen edo webgunearen orrietako edozeinen «browser» bat sortzen. LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK webguneko esteka kentzeko eskatu ahal izango du edozein unetan, eta, horren ondoren, berehala kendu beharko da esteka hori. LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ezin ditu kontrolatu webgunerako esteka duten beste webgune batzuetan ematen diren informazioa, edukiak, produktuak edo zerbitzuak.

Ondorioz, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du inolako erantzukizunik onartuko webgune horietako edozein alderdiri dagokionez.

6. Datuen babesa

Harremanetarako inprimakia erabili ahal izateko, erabiltzaileek datu pertsonal batzuk eman behar dituzte aurretik. Horretarako, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK datu pertsonalak Datuak Babesteko Europako 679/2016 Erregelamendu Orokorren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta aplikagarriak diren araudien arabera tratatuko ditu. Horretarako, aukera duzu webgune honetan jasota dauden dokumentu hauetara sartzeko: aurrez ezarritako politikak, datu pertsonalen tratamenduari eta xedeen ezarpenari buruzkoak, eta datuak babesteko politikan zehaztutako baldintzak.

7. Cookieak

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK beretzat gordetzen du webgunean «cookie» teknologia erabiltzeko eskubidea, zu ohiko erabiltzaile gisa identifikatzeko eta webgunearen erabilera pertsonalizatzeko eduki esanguratsu edo zehatzagoak eskainita. Webguneak edo haren izenean jarduten duen hirugarrenak

erabiltzen dituen cookieak erabiltzaile anonimoekin eta beren ordenagailuarekin lotzen dira soilik; ez dute erabiltzaileen datu pertsonalik ematen.

Cookieak fitxategi batzuk dira, web-zerbitzari baten bidez nabigatzaileari bidaltzen zaizkionak, erabiltzaileak webgune jakin batean zer-nolako nabigazioa duen erregistratzeko, erabiltzaileak horretarako baimena ematen duenean. Aldi berean, cookieak ezabatzeko aukera duzu. Horretarako, zure nabigatzailearen erabilerarako jarraibideak kontsultatu beharko dituzu.

Cookieei esker, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK erabiltzailearen ordenagailuan erabilitako nabigatzailea ezagutzen du, eta, horrela, erabiltzailearen lehentasunen eta profil demografikoen arabera nabigazioa eta publizitatea eskain dezake, eta bisitaldiak eta trafikoaren parametroak neur ditzake, sarbideen bilakaera eta kopurua kontrolatuta. Informazio gehiago gure cookieen politikan.

8. Iraupena eta amaiera

Webgune honen zerbitzuak, printzipioz, denbora-mugarik gabe eskainiko dira. Hala ere, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK atari honetako edozein zerbitzu amaiarazi edo eten dezake. Ahal denean, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK zerbitzu jakin baten amaiera edo etetearen berri emango du.

9. Adierazpenak eta bermeak

Oro har, webguneko eduki eta zerbitzuak informazioa emateko xedearekin eskaintzen dira. Ondorioz, horiek eskaintzean, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du webgunean jasotako produktuen inguruko bermerik edo adierazpenik egiten (besteak beste, legezkotasunari, fidagarritasunari, erabilgarritasunari, egiazkotasunari, zehaztasunari edo merkaturatzeko ahalmenari dagozkion bermeak, besteak beste, salbu eta legez adierazpen eta berme horiek salbuetsi ezin daitezkeenean).

10. Ezinbesteko kasuak

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK ez du erantzukizunik izango zerbitzua emateko ezintasunik badago, horren arrazoi badira elektrizitate-horniduraren edo telekomunikazio-lineen etenaldi luzeak, gatazka sozialak, grebak, matxinadak, eztandak, uholdeak, Gobernuaren ekintzak eta omisioak eta, oro har, ezinbesteko edo ustekabeko bestelako kasuak.

11. Auzien ebazpena. Lege aplikagarria eta jurisdikzioa

Erabilera-baldintza orokor hauek, bai eta webgunearen erabilera ere, Espainiako legeriaren arabera arautuko dira. Edozein auzi Bizkaiko auzitegietan ebatziko da.

Erabilera-baldintza orokor hauetako klausularen bat aplikaezina edo ezdeusa izango balitz legeria aplikagarriaren ondorioz edo justiziaren edo administrazioaren ebazpen baten ondorioz, aplikaezintasun edo ezdeustasun horrek ez du ekarriko erabilera-baldintza orokor hauek aplikaezin edo ezdeus bihurtzea. Kasu horietan, LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK estipulazio hori baliagarria eta aplikagarria den beste batekin ordeztuko du eta, posible den heinean, jatorrizko estipulazioaren xede eta asmo bera duen idazketa bat erabiliko du.

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Tratamenduaren arduraduna: LEZAMA GAILUR MENDI TALDEA.

IFK: G48643639.

Posta-helbidea: Garaiotza kalea 133 E- Uribarri Topalekua, 48196 Lezama (Bizkaia).

Posta elektronikoa: gailurmt@outlook.com

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK jakinarazten dizu inprimaki honen bidez ematen dizkiguzun datu guztiak eskatutako informazioaren bidalketa kudeatzeko erabiliko direla. Hortaz, ezinbestekoa da eskatutako eremu guztiak betetzea, zurekin harremanetan jarri ahal izan gaitezen.

Emandako datuak gordeko ditugu merkataritza-harremanak irauten duen bitartean, edota lege-betekizunak betetzeko behar beste denboran. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, ez bada lege-betekizunen batengatik.

Datu pertsonalak jaso eta tratatzean, beharrezko segurtasun-neurri egokiak ezarri dira, horiek gal ez daitezen, norbaitek baimenik gabe haiek atzi ez ditzan edo manipulatuak izan ez daitezen.

LEZAMA GAILUR MENDI TALDEAK konpromisoa hartzen du eskuratzen duen informazio konfidentziala babesteko.

Erabiltzaileak adierazten du 14 urtetik gorakoa dela eta, hortaz, bere datu pertsonalen tratamendua baimentzeko lege-gaitasuna duela, pribatutasun-politika honetan ezarritakoarekin bat.

Erabiltzaileak edozein unetan balia ditzake bere datu pertsonaletara sartzeko, haiek zuzentzeko, ezerezteko, kontra egiteko, mugatzeko, ezabatzeko eta datuak eramateko eskubideak, bai eta adierazitako edozein xedetarako baimena atzera botatzeko ere. Horretarako, gurekin jarri beharko du harremanetan, enpresaren egoitzara etorrira edo harremanetarako posta elektronikora idatzita.

COOKIEAK: Cookien politika

COOKIEEI BURUZKO INFORMAZIOA

13/2012 Errege Dekretuak ezarritako "Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei buruzko Legea" (LSSICE) aldaketa indarrean sartzearen ondorioz, nahitaezkoak ez diren cookieak erabiltzen dituzten webgune guztien erabiltzaileen berariazko baimena eskuratu behar da webgunean nabigatzen hasi baino lehen.

ZER DIRA COOKIEAK?

Cookieak eta antzeko beste teknologia batzuk (*local shared objects*, *flash cookies* edo pixelak) web-zerbitzariak erabiltzen dituzten tresnak dira bisitariari buruzko informazioa gordetzeko eta webguneak zuzen funtzionatzeko.

Gailu horiek erabiltzeari esker web-zerbitzariak erabiltzaileari buruzko zenbait datu gogora ditzake, besteak beste: zerbitzari horretako orriak ikusteko lehentasunak, izena eta pasahitza, gehien interesatzen zaizkion produktuak...

ARAUDIAREN ERAGINPEKO COOKIEAK ETA SALBUETSITAKO COOKIEAK

EBren zuzentarauaren arabera, erabiltzailearen baimen informatua behar duten cookieak cookie analitikoak eta publizitateko eta afiliatzeko cookieak dira. Salbuetsita daude izaera teknikoak dutenak eta webguneak funtzionatzeko edo erabiltzaileak berariaz eskatutako zerbitzuak eskaintzeko nahitaezkoak direnak .

ZER COOKIE MOTA DAUDE?

Cookie motei dagokienez, bost talde handi hauek daude:

- Cookie analitikoak: webgunearen erabilerari buruzko informazioa jasotzen dute.
- Cookie sozialak: kanpoko sare sozialetarako beharrezkoak direnak.
- Afiliatuen cookieak: beste webgune batzuetatik datozen bisitei jarraipena egiteko aukera ematen dute; webguneak webgune horiekin afiliazio-kontratuak ditu (afiliazio-enpresak).
- Publizitateko eta jokabidezko cookieak: erabiltzailearen lehentasunei eta hautaketa pertsonalei buruzko informazioa jasotzen dute (*retargeting*).
- Cookie teknikoak eta funtzionalak: webgunea erabiltzeko eta kontratatutako zerbitzua eskaintzeko behar-beharrezkoak dira.

WEBGUNE HONETAN ERABILTZEN DIREN COOKIEAK

- **OneTrustRemoved:** hirugarrenen cookiea. Interneteko leku horretan gorde daitezkeen cookieak aukeratzeko erabiltzen da, webgunean nabigatzeko behar-beharrezkoak diren funtsezko cookieak izan ezik.
- **_gads:** hirugarrenen cookiea. Google Adsense-k erabiltzen ditu zure nabigatzaile-profilarekin lotutako publizitatea erakusteko.
- **didome_token:** cookie hau beharrezkoa da publizitatea egiteko, onartu ondoren.
- **et_session_pv:** cookie propioa. Datuak jasotzen dituzte erabiltzailea sarean nabigatzen ari denean, eskatutako zerbitzua eskaintzeko asmoz.
- **laravel_session:** cookie propioa da, erabiltzaile bakoitzaren saioa kudeatzeko.
- **AUID:** cookie honek datuen edukia eta datu osagarriak gordetzen ditu, hala nola Cart_Id eta saio horretarako bilaketa aurreratuko lehentasun batzuk. Cookie hau 60 egunen buruan indargabetzen da.
- **NID:** cookie honek zure lehentasunak eta beste informazio batzuk gordetzen ditu; zehazki, zure lehentasunezko hizkuntza eta orri bakoitzeko erakustea nahi duzun bilaketa-emaizten kopurua.

Halaber, webgune honetatik sare sozialetara joan zaitezke:

Facebook, Twitter eta beste sare sozial batzuek botoiak hornitzen dizkigute eta, horien bitartez, zuzenean argitara ditzakegu edukiak sare sozial horietan. Botoi horiek ere cookieak erabiltzen dituzte funtzionatzeko.

Sare sozialen pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago:

Twitter sareak "guest_id", "_twitter_sess", "k" eta "original_referer" cookieak erabiltzen ditu, baita Google analytics-en cookie propioak ere. Informazio gehiagorako, Twitter sarearen pribatutasun-politikaren araudia ikusi.

Facebook sareak "locale", "reg_fb_gate" eta "reg_fb_ref" cookieak instalatzen dizkigu.

Informazio gehiagorako, joan Facebooken cookieen politikara.

COOKIEAK INSTALATZEKO ADOSTASUNA KENTZEA ETA NABIGATZAILERIK COOKIEAK EZABATZEKO MODUA

Chrome

1. Aukeratu Tresnak ikonoa.
2. Egin klik "Ezarpenak" botoian.
3. Egin klik "Erakutsi aukera aurreratuak".
4. "Pribatutasuna" atalean, egin klik "Edukiaren ezarpenak" aukeran.
 - Ezabatu cookieak: Egin klik "Web orrialdeen datu eta cookie guztiak" aukeran.
 - Ez utzi cookieak biltzen.
5. Egin klik "Nabigazio-datuak ezabatu (caché-a hustu)" aukeran.
6. Nabigatzailea itxi eta berrabiarazi.

Chrome-ri buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sartu esteka honetan:
<http://support.google.com/chrome/answer/95647?hl=es>

Internet Explorer. 11. bertsioa

1. Aukeratu "Tresnak | Interneten aukerak".
2. "Orokorra" fitxan klik egin.
3. "Esplorazioaren historia" aukeran, egin klik "Ateratzean esplorazio historia ezabatu" aukeran.
4. Aukeratu "Fitxategiak ezabatu".
5. Aukeratu "Cookieak ezabatu".
6. Egin klik "Ezabatu" aukeran.
7. Egin klik "Onartu" aukeran.
8. Nabigatzailea itxi eta berrabiarazi.

Internet Explorer-i buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sartu esteka honetan:
<https://support.microsoft.com/es-es/kb/278835>

Firefox. 18. bertsioa

1. Aukeratu "Firefox | Historia | Orain dela gutxiko historia garbitu".
2. "Xehetasunak" atalaren ondoan, egin klik beheara begira dagoen gezia.
3. Hautatu egiaztatze-lauki hauek: Cookieak, Caché-a, Aktibatutako saio-hasierak.
4. Menu zabalgarrian dagoen "Ezabatzeko denbora tarte" erabiliz, aukeratu "Guztia".
5. "Orain ezabatu" aukeran klik egin.
6. Nabigatzailea itxi eta berrabiarazi.

Cookieak banan-banan onartu edo ukatu ditzakezu Firefoxen "Lehentasunak" atalean (Historia atalean, Tresnak > Aukerak > Pribatutasuna).

Mozilla Firefoxen buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sakatu esteka hau: <https://www.mozilla.org/es-ES/privacy/websites/#cookies>

Safari Versión 5.1

1. Aukeratu "Safariren ikonoa / Editatu | Safari berrezarri".
2. Hautatu egiaztatze-lauki hauek: Historia ezabatu, Web gunearen datu guztiak ezabatu.
3. Egin klik "Berrezarri" aukeran.
4. Nabigatzailea itxi eta berrabiarazi.

Safariri buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sakatu esteka hau: https://support.apple.com/kb/ph21411?locale=es_ES

Opera

Aukerak - Aurreratuak - Cookieak.

Cookieen aukerek Operak erabiltzen dituen modua kontrolatzen dute, eta, horrenbestez, baita horiek onartzea eta ukatzea ere.

Operari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sakatu esteka hau: <http://help.opera.com/Linux/10.60/es-ES/cookies.html>

Beste nabigatzaile batzuk

Kontsultatu instalatuta duzun nabigatzailearen dokumentazioa.

LEZAMA **GAILUR** MENDI TALDEA

Garaioltza, 133-E 48196 Lezama (Bizkaia)
gailurmt@outlook.com
www.gailur.org

